# ¡RAKURRI, ETA ONDO PASA!

**JOKOAK**

## Printze Txikiaren domino eta memoria jokoak

*Le Petit Prince* liburu ospetsuaren marrazki ederrekin hornituta daude Printze Txikia bildumako jokoak. Akuarelaz egindako ilustrazio xumeak bezain dotoreak dira, eta liburuko testua bezain ezagunak. Jolas egiteko eta hezteko jokoak dira biak.

Aurkezteko modua ere berezia da: imanaz ixten den kutxa polit batean aurkezten dira jolaseko piezak. Itxura dotorea eta erakargarria dute jolasek, eta haiekin jolasten hasteko gogoa pizten dute.

Antoine de Saint-Exupery idazle frantsesak idatzitako eta ilustratutako lan ezagunenetariko bat da Printze Txikiaren kontakizuna. Ia 200 hizkuntzatara itzuli da. Kontakizuna sinplea da, baina mezu sakonak transmititzen ditu: bizitzaren zentzua, maitasuna, adiskidetasuna...

Joko klasiko politak dira, etxeko txikientzat eta hain txikiak ez direnentzat ere. Jolasean ondo pasatzeaz gain, Printze Txikiaren unibertso liluragarrian murgiltzeko joko aproposak dira.




**Antoine de Saint-Exupery**
Argitaletxea: **Ttarttalo**

**DENBORA-PASAK**

A N R E T S A K I






## 1. Osatu hitzak

Txirula ongi jo arren, ez zaio sugerik irteten saskitik Nasrudimi. **Saskitik ateratako hizkiekin hitzak osatzea da zure lana.**

## 2. Bikiak

Kalean argi berriak jarri dituzte. Argi itzela egiten dute. **Itzalen artetik zein da kaleko argiarena?**




**Erantzunak**

2.- c)